BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO IKUS-ENTZUNEZKO ETA IRUDI ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Donostia Zinemaldirako ikus-entzunezko zerbitzuak ematea da, besteak beste:

a) Aholkularitza artistikoko, koordinazioko eta beharrezko ekipamenduen eta langileen kontratazioko zerbitzua, Donostia Zinemaldiko Komunikazio eta Ekoizpen Teknikoko Sailen argibide teknikoei eta edukiei jarraituz.

b) Donostia Zinemaldiko ikus-entzunezko edukien grabazioa, edizioa eta postprodukzioa.

c) Donostia Zinemaldiak emandako instalazioetan instalatzea eta Donostia Zinemaldiari dagozkion ikus-entzunezko edukiak grabatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko eta zirkuitu itxian emititzeko beharrezkoa den ikus-entzunezko ekipamendua jartzea.

d) Donostia Zinemaldiak emandako lekuan elkarrizketa-seten eta prentsaurrekoen vip aretoaren ekipamendu teknikoa, ikus-entzunezkoa eta argiztapenekoa instalatzea.

Esleipendunak proiektuaren emaitza ezin hobea izango dela ziurtatzeko beharrezko jakintzak, esperientzia, metodologiak eta tresnak izan beharko ditu, baita baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

Esleipendunak isilpean gorde beharko du eta isilpean gordearazi beharko die kontratua betetzeko baliatzen dituen langileei lana dela-eta Sozietatearekin lotuta iristen zaien informazio guztia, eta ezingo dute informazio hori erabili ez beraientzat ez beste pertsona, entitate edo marka batentzat ere.

2.- EGIN BEHARREKO LAN ETA JARDUERAK

Jarraian, kontratuaren xedea osatzen duten lanak datoz deskribatuta. Lan horiek esleipendunak egin beharko ditu. Dena den, jarraian deskribatutako lanak ez dira kontrataturiko zerbitzuen ezaugarrien zerrenda zehatza, baizik eta Sozietateak eskatutako ildo nagusiak.

OHAR OROKORRAK:

- Hizkuntzak: Zinemaldiaren kanpo-komunikazioa hiru hizkuntzatan egiten da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hiru hizkuntza horiek presente egon beharko dute sortzen diren ikus-entzunezko edukietan. Hizkuntzen presentzia bideo motaren araberakoa izango da, eta inguruabar hori kontuan hartuko da errotulazioak eta grafismoak proposatzeko orduan, edota jatorrizko audioak azpitituluekin konbinatzean, hala badagokio. Batzuetan, aski izango da bertsio bakarra sortzea (hiru hizkuntzakoa); beste batzuetan, bideo bat egin beharko da hizkuntza bakoitzeko. Komunikazio sailak zehaztuko ditu kasu bakoitzean aintzat izan beharreko jarraibideak.

  Itzulpen kostuak ez du eskaintzan sartuta egon beharko.

- Formatuak: Bai emititu eta ikusteko artxiboak bai jatorrizko artxiboen edukia ere mp4 H264 formatuan eman behar zaizkio Zinemaldiari. Honako hauek eman behar zaizkio:
  - Azken bideo editatuak.
  - Kamerako jatorrizko bruto natiboak (geroko edizio eta muntaketei begira).
  - Pieza osoaren jatorrizko brutoak, ikusteko konprimiturik.
  - Audio bereiziak (geroko edizio eta muntaketei begira).
  - Irudia errotulazioetatik bereiz esportatzea (geroko edizio eta muntaketei begira).
  - Sail bakoitzaren goiburuak Zinemaldiko Teknika sailak zehazten dituen formatuetan entregatu beharko dira. Hauek izan ohi dira: Scope 2.39, Flat 1.33, Flat 1.66 eta Flat 1.85.

- Diseinuak eta grafismoak: Pleguan adierazitako edukietarako eta Zinemaldiko Telebistaren emisioak jarraitzeko behar diren goiburuen, grafismoen, iragarkien edo aurrerapenen postprodukzioak edizioaren elementu grafikoei egin beharko die erreferentzia, eta koherentzia bisuala ere izango du.

- Musika: Zinemaldiko Telebistan emititutako saioetan erabiliko diren musikak hautatzea eta hornitzea; musika horiek Zinemaldiarekin kontrastatuko dira. Dagozkien lizentziak kudeatzea, kontuan izanik webgunean ere emitituko direla.

- Edukiak eta epeak: Zinemaldiari dagokio lanen edukia eta lanak entregatzeko epea zehaztu eta erabakitzea. Zinemaldiak gainbegiratu, kontrolatu eta onetsiko ditu horiek guztiak. Esleipendunak modurik onenean bideratuko ditu giza baliabideak eta baliabide teknikoak fase guztietan.

- Webgune ofiziala eta Zinemaldiaren barne-zirkuitua edukiz hornitzea:
  Zinemaldiak langile-egitura eta ekipazio tekniko propioa ditu prentsaurrekoen eta galen zuzeneko streaminga webgune ofizialean emititzeko audio ezberdinekin, eta grabatutako emanaldiari dagokion kodetzearekin. Esleipendunak sortu ahala hornituko dizkio **editatutako pieza** guztiak webgune ofizialeko taldeari, eta talde hori arduratuko da pieza horiek prozesatzeaz, web-zerbitzarira igotzeaz, indexatzeaz eta argitaratzeaz. Baterako jardun-protokolo bat sortuko da, artxibo-truke hori egiteko.

  Emisio-taldea Kursaaleko audio- eta bideo-seinaleen banaketara sartzen da dagozkien emankizunak egiteko, eta bere edukietako batzuen seinalea Zinemaldiaren webgune ofizialeko taldeari banatzeaz arduratzen da.

- Beste irudi-hornitzaile batzuekin harremanetan izatea (TVE, ETB,…).

2.1 IKUS-ENTZUNEZKO EDUKI ERREPIKARIA SORTZEA

SSIFFen edizio guztietan egiten diren gutxieneko grabazio-, errealizazio-, edizio- eta emisio-zerbitzuak honako hauek izango dira:

2.1.1 Zinemaldiaren aurreko grabazioak eta edizioak:

Programazioa aurreratzeko pieza, gortinatxo eta autopromoziorako pieza erakargarri eta berritzaileak egitea, Zinemaldiaren gaineko irudiarekin koherentzia bisualari helduz.

- Goiburu ofiziala animatzea, teknika sailak eskatzen dituen formatuetan entregatzeko.
- Sailen goiburuak eguneratzea, 30 segundotik beherako iraupenekoak, teknika sailak eskatzen dituen formatuetan entregatzeko; orientazio gisa, 2023an Perlak eta New Directors-en 4 bertsio eta Horizontes Latinos-en 2 bertsio izan ziren.
- Kursaaleko fatxadarako animazioa, teknika sailak eskatzen dituen formatuetan entregatzeko.

2.1.2 Zinemaldian zehar egiten diren ekitaldiak grabatzea, errealizatzea eta editatzea.

Donostia Zinemaldiko Komunikazio eta Ekoizpen Teknikoko sailek emandako jarraibide teknikoak, edukiak eta gauzatzearen kontrola kontuan hartuta, honako lan hauek egingo dira, orientazio gisa, baina ez baztertzaile gisa:

- Aldez aurretik adostutako ekitaldien grabaketa, errealizazioa eta/edo streaming-a egitea, gutxienez 2 kamerako ekipoarekin:
    - Kursaaleko prentsa klubeko elkarrizketak, ekitaldiak, prentsaurrekoak eta/edo aurkezpenak, 9:00etatik 14:00etara. Grabazioak ekitaldia amaitu eta ordubetera eman beharko zaizkio web-ekipoari.
    - Klausura galaren ekitaldiaren errealizazioa Antonio Elorza Belodromoan.

- Grabaketa, gutxienez kamera bateko ekipoarekin
    - Komunikazio sailak eskatuta, elkarrizketak, ekitaldiak, prentsaurrekoak eta/edo Kursaaleko prentsa klubeko aurkezpenak, 14:00etatik aurrera. Ekitaldian zehar errealizaziorik egiten ez bada, editatu egin beharko dira eta web-ekipoari eman beharko zaizkio grabazioak, amaitu eta gehienez ere hiru orduko epean.
    - Perlak saileko aurkezpenak: 10-15 minutuko aurkezpen laburra Victoria Eugenia Antzokian filma proiektatu aurretik.
    - Gainerako sailetako filmen aurkezpen eta solasaldiak: 5-10 minutuko aurkezpen laburrak, lantaldearekin etorri diren gainerako sailetako filmen lehen emanaldietan eta ondorengo solasaldian, 15-20 minutuko batez besteko iraupenarekin. Hainbat esparrutan izan daitezke, batez ere Principe Zinemetan, Tabakaleran eta Kursaal 2an.
    - Nest Topaketak. Tabakaleran astelehenetik ostiralera egiten diren NEST jardueren baliabide planoak grabatzea.
    - Culinary Zinemako afariak, azken urteotan Basque Culinary Centerren instalazioetan egin direnak.

- Grabaketa eta edizioa:
    - Iritsierak, photocallak, alfonbra gorriak, Kursaaleko emanaldiko filmaren lantaldearen eta Victoria Eugenia Antzokian Perlak saileko emanaldien irteerak, sari-banaketak, Festa Ofizialak.
    - Eguneko laburpenak. Zinemaldian egunero gertatzen denaren gehienez hiru minutuko iraupena duten bideo laburrak, webgunean eta Zinemaldiko telebistan emititzeko.
    - Zinemaldiko filmetako taldeei eta gonbidatuei egindako elkarrizketak, haientzat egokitutako espazioetan.
    - Batez ere astelehenetik asteazkenera egiten diren industria-jardueren estaldura: aurkezpenak, mahai-inguruak, Koprodukzio Foroaren jarduerak, WIP Latam, WIP Europa eta Ikusmira Berriaken jarduerak grabatzea, eta elkarrizketak egitea, Zinemaldiko Komunikazio sailaren irizpidepean. Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira Spanish Screenings eta Zinemaldi & Technology-ko jardueren estaldura eta Zinemaldiaren aurreko Industriako pitchingen edizioa.

2.1.3 Bideoak egitea.

Gala-ekoizpen eta komunikazio sailen esanetara, galetarako ondorengo bideoak egingo dira. Orientazio gisa, baina ez baztertzaile gisa, honako bideo hauek beharko dira:

- Ohorezko sariak: Sarituen historiaren bideoaren eguneraketa.
- Inaugurazio Gala: galetarako 8 bideo gehienez, Zinemaldiko sailetako batekin edo artxiboko irudiekin eta gonbidatuen adierazpenekin lotutakoak, diseinu bat behar duten bideoak, baina ez gidoigintzarik (5. Mota). Gainera, bi bideo berezi gidoia, diskurtsoa, ezagutza zinematografikoa, eta artxiboa eta aurreko grabazioak berrikustea eskatzen dutenak (2. Mota).

- Klausura Gala: Industriako sarien banaketaren laburpen-bideoa, 1,5 minutu ingurukoa, eta film irabazleen bideo laburrak, begiztan proiektatzen direnak.
- "Horrela izan zen" bideoak: Klausura galarako bideo bat, lau minutu baino gutxiagoan edizioa laburbiltzen duena, eta, beste bideo bat, hamar minutu ingurukoa, Anoetako Belodromoko Klausuran proiektatzeko. Honen azken bertsioa Klausuraren egun berean entregatu beharko da, eta beharrezkoa izango da bezperan amaitu gabeko bertsio bat, beharrezko proba teknikoak egin ahal izateko.
- Filmen klipak egokitzea Galetan proiektatzeko. Klip horiek SSIFFeko komunikazio sailak administratuko ditu, kutxatila birtualaren bidez.

2.1.4 Zinemaldiko telebista emititzea:

Etenik gabe 9:00etatik 22:00etara bitartean telebista-seinalea ematea, hainbat kanalen bitartez:

- Kursaal zentroko pantaila itxien zirkuitu itxia.
- Victoria Eugenia Antzokiko eta Zinemaldiko bulegoetako pantailen zirkuitu itxia.
- Okendo plazako pantaila.
- Klausura galaren zuzeneko emanaldia Antonio Elorza Belodromoan jarritako zinema pantailan.
- Kursaal Zentroko 2+3 aretoan egiten diren prentsaurrekoetan RTVEk egiten duen errealizazioa jaso, kopiatu eta emititzea.
- Babesleen iragarkiak jasotzea, bihurtzea eta normalizatzea, ondoren emititzeko. Dagozkien emisio-konpromisoen araberako sailkapena.

2.1.5 Elkarrizketak

- Elkarrizketak Maria Cristina Hoteleko suitean eta Kursaaleko VIP aretoan egiteko beharrezko argiztapena.
- Elkarrizketatzailea eta kameralaria, Zinemaldiko komunikazio sailarekin aurrez adostutako elkarrizketak egiteko.

2.2 IKUS-ENTZUNEZKO EDUKI ALDAKORRA SORTZEA

Edizio bakoitzean aldakorrak izango diren zerbitzuak, eta behar diren heinean eskatuko direnak, edizio bakoitzaren berezitasunen arabera:

2.2.1 Zinemaldiaren aurreko prentsaurrekoak grabatzea eta editatzea

Urtean zehar egiten diren prentsaurrekoen grabazioa eta prentsaurreko hauetarako eta Zinemaldiko albisteetarako sailetako bideoen edizioa. Gutxi gorabehera, 2023an 5 prentsaurreko izan ziren. Zinemaldiak gutxienez hilabete lehenago emango du ekitaldi horien berri, kontratistak horien gauzatzea planifikatu ahal izan dezan.

Grabazio horiek gutxienez kamera batekin egin beharko dira, eta 30 minutu inguruko iraupena izango dute.

2.2.2 Bideoak

Hainbat bideo-kategoria ezartzen dira, haien ezaugarrien arabera:

- **1. mota**: Bideo konplexuak dira, ezagutza zinematografikoa, material asko, ikuste-jardunaldiak, dokumentazioa berrikustekoa, gidoigintza, azpitituluak, hizkuntza-bertsioak eta hainbat berrikuspen eskatzen dituztenak. Adibidez, ohorezko bideoak eta orkestraren

kontzertua Belodromoan. Orientazio gisa, 2023an, 2.1 puntuan sartu gabeko mota horretako 4 bideo eskatu ziren.

- **2. mota**: Beste bideo berezi batzuk, gidoigintza, diskurtsoa, ezagutza zinematografikoa, artxiboaren berrikuspena, grabazioak Zinemaldiko egunetan, grafismoa, animazioak, hizkuntza-bertsioak eta hainbat berrikuspen eskatzen dituztenak. Adibidez, Industriako laburpenak eta babesleenak, edo Euskal Zinemaren prentsaurrekorako bideoak. Orientazio gisa, 2023an, 2.1 puntuan sartu gabeko mota horretako 5 bideo eskatu ziren.

- **3. mota:** Aurrekoen antzeko bideoak, nolabaiteko gidoiarekin, baina egiteko zailtasun txikiagoarekin.

- **4. mota:** Sailetako bideoak, gai jakinetako pelikulenak edo sariren bat lortzeko lehian daudenak; adibidez, AECID saria, Culinary Zinema Saila, Atzera Begirakoa, etab. Orientazio gisa, 2023an, 2.1 puntuan sartu gabeko mota horretako 4 bideo eskatu ziren.

- **5. mota:** Bideo sinpleagoak, diseinu bat behar dutenak baina gidoirik behar ez dutenak, azpitituluekin edo azpititulurik gabe, eta gutxi gorabehera ordubeteko mahai-inguruak, 2.1 puntuan sartuta ez daudenak. Orientazio gisa, 2023an, 2.1 puntuan sartu gabeko mota horretako 2 bideo eskatu ziren.

- **6. mota:** Mahai-inguru, ekitaldi, prentsaurreko eta sari-banaketen edizioa, eta egindako bideoen berredizio errazak. Orientazio gisa, 2023an, 2.1 puntuan sartu gabeko mota horretako 4 bideo eskatu ziren.

- **7. mota:** Prozesu azkarreko bideoak: muntaia erraza, irudi-trinkotzea azpitituluekin edo gabe, eta autograbatutako bideoen edizioa, sari bat eskertzeko edo proiektu baten pitching bat egiteko.

2.2.3 Bestelakoak

Grabatzeko, errealizatzeko eta streamingerako lanaldi erdia, 2.1.2. puntuan ezarritako ordutegitik kanpoko saioetarako.

2.2.4 Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoa

Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan 9:00etatik 14:00etara (larunbatetik larunbatera zerbitzua, biak barne) egin daitezkeen elkarrizketen edo bestelako ekitaldien grabaketa eta errealizazioa, gutxienez bi kamerarekin egitea.

2.3 BESTE ESKAKIZUN BATZUK

Zinemaldiaren amaierako bideoekin batera, ikus-entzunezko materiala erraz aurkitzeko aukera emango duen grabazio-gidoi bat (script bat) entregatu behar da hilabeteko epean.

Gainera, enpresa esleipendunak Zinemaldiko bere lanaren memoria bat egin beharko du, eta abenduan entregatuko du.

3.- LANAREN EXEKUZIOA, METODOLOGIA ETA DINAMIKA

Kontratu hau esleitu ondoren abian jartzeko, baterako azterketa eta analisia egiteko fase bat zabalduko da, Sozietateko lantaldearen eta esleipendunaren artean, beharren planifikazioa zehazteko eta kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko kontuan hartu beharreko alderdi guztiak argitzeko.

Enpresa esleipendunak plegu honetan zehaztutako moduan gauzatuko ditu lanak, eta kontratua gauzatzeari dagokionez arduradun bat izendatuko du; arduradun horrek zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizunak beteko ditu, proiektuaren arduradunak Zinemaldian ezarritako jarraibideak bete beharko ditu, eta modurik onenean esleitu beharko ditu baliabide teknikoak eta giza baliabideak, kontratuaren xedea betetzeko.

Esleipendunak Zinemaldiaren lankidetza aktiboarekin gauzatuko du proiektua, eta beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia emango diote elkarri.

Zinemaldiak gainbegiratu, kontrolatu eta onetsiko ditu egindako lanak, eta egokitzat jotzen dituen aldaketak proposatuko ditu. Hala badagokio, kontratua indargabetzera iritsi ahalko da, horretarako nahikoa arrazoi egonez gero.

4.- LANTALDEA

Lizitatzaileak kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala gauzatuko direla bermatzen duen lantaldea proposatu beharko du. Hori horrela, kontratua gauzatzeari lotutako langileen organigrama aurkeztuko du; bertan, lanpostu bakoitzak izango dituen eginkizunak zehaztuko ditu eta langile bakoitzaren curriculum vitaea erantsiko du.

Atxikitako langileen artean, honako hauek izendatu beharko dira:

- Zuzendaritza artistikoko, produkzioko eta ekipamenduen eta langileen koordinazio teknikoko arduradun bat, antzeko kontratuetan gutxienez 5 urteko esperientzia duena.

- Ikus-entzunezko edukiak grabatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko behar besteko kualifikazioa duten langileak.

- Elkarrizketak egiteko gutxienez kazetari baten profila sartu beharko da, eta Zinemaldiak onartu beharko du azken izendapena.

Langile guztiek Zinemaldiaren gainbegiradapean, kontrolpean eta oniritzipean jardungo dute bere lanean, eta Zinemaldiak edozein unetan eman ahal izango du edozein langile kontratutik at uzteko agindua, bere ustez langile hori ez dagoenean behar bezain gaitua dagokion lana egiteko, edota jarrera kaltegarria izaten ari denean Zinemaldiaren irudi onari eta emaitzei dagokionez.

5.- EKIPAMENDU TEKNIKOA

Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko, kontratua gauzatzera zer bitarteko tekniko bideratuko dituen zehaztu beharko du lizitatzaileak. Zehaztasun horiek ematean, honako ekipamendu hauek jaso beharko ditu, zerrenda hau orientagarria izanik, ez baztertzailea:

- Urtean zehar bideo-piezak editatzeko ekipamendua.

- Kursaal zentroko instalazioetan edizio, muntaketa, postprodukzio eta emisiorako izango duen ekipamendua.

- Plegu honen 2. klausulan adierazitako grabazio eta errealizazio guztiak egiteko ekipamendua.

- Elkarrizketa-setetarako eta prentsaurrekoetako vip aretorako ekipamendua.

Ekipamendu horiek behar duten garraioa, muntaketa, desmuntaketa eta beste edozein lan esleipendunaren kontura izango dira.